



Lekua: Batzar Aretoa / Lugar: Salón de Plenos

Bildutakoak: / Asistentes:

Alkatea / La Alcaldesa Maider Lainez Lazcoz

Zinegotziak: / Concejales/as:

EH-Bildu	Andoni Alvarez Lete Estibalitz Mujika Tolaretxipi Jon Zulueta Berastegi Garazi Usandizaga Zubiria Julian López Aracama M ^a Teresa Etxeberria Arteun Xabier Fondón Pajares
PSE-EE	José Luis Verdasco Gutierrez Ascensión Parrón Peguero Petra Romero Pozo
EAJ-PNV	Maria Jose Izagirre Iturzaeta Alexander Huitzi Alfonso M ^a Sagrario Ruiz Fernández Imanol Goenaga Egibar
Elkarrekin Podemos	M ^a Teresa Santana Rubio

Akta Zenbakia	0000014
Eguna	2022/11/24
Hasiera	19:00
Amaiera	19:45

Idazkaria:

María Uriarte Zurikaray

Kontuhartzailea

Myriam Lizaso
Arruabarrena

Interpretaria

Jon Unanue Lopez

Ez dira bertaratu eta adierazi dute: / No asisten y se excusan:

Oscar Mendo González, quien ha delegado su voto en el concejal José Luis Verdasco Gutiérrez.

Gai Zerrenda:

- 2022/10/27an egindako batzarraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada.

Xedapenak

- Onartzea, hasierako izaeraz, Barne-gatazkei, laneko jazarpenari, sexu jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko sarrera bakarreko protokoloa proposamena.
- Udalaren Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Planaren aldaketa, erretiro-primei dagokienez.
- Ikutza-Illarramendi auzuneko izendegia behin betikoz onartzea.
- 2022.09.30 datako Kontu-hartzailearen txostenaren berri ematea.
- Kredituak judizioz kanpo aitortzea (2022/012 txostena) onartzeko proposamena.
- K1 Ekopasaia SLLren gastua onartzea, Ondarreta haur-eskolako patioa berritzeko egindako obregatik.

Orden del Día:

- Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la sesión celebrada el 27/10/2022.

Parte Dispositiva

- Aprobación, con carácter inicial, de la propuesta de Protocolo de entrada única para el afrontamiento de los conflictos internos, acoso laboral, sexual y por razón de sexo.
- Modificación del Plan de Racionalización de Recursos Humanos del ayuntamiento en cuenta a las primas de jubilación.
- Aprobación definitiva del nomenclátor del barrio Ikutza-Illarramendi.
- Dar cuenta del Informe de la Interventora a fecha 30.09.2022.
- Propuesta de aprobación de Reconocimiento extrajudicial de créditos (informe 012/2022).
- Aprobación del gasto de K1 Ekopasaia SLL por obras de renovación en el patio de la escuela infantil Ondarreta.



- | | |
|--|--|
| <p>8. UNICEF Espainiako Batzordea Fundazioarekin sinatu beharreko hitzarmena, tokiko haurren politikak bultzatzeko konpromisoari buruzkoa.</p> <p>9. Beterri Buruntza Mankomunitateak udalari egindako kudeaketa-gomendioa onartzea.</p> <p>10. Elkarrekin Podemos-IUk 2022/10/25 datan aurkeztutako mozioa eta PSE-EE (PSOE) eta EAJ/PNV udal taldeek 2022/11/17an aurkeztutako mozio alternatiboa.</p> | <p>8.- Convenio a suscribir con Fundación UNICEF Comité Español, sobre compromiso para el impulso de las políticas de infancia.</p> <p>9.- Aceptación de la encomienda de gestión realizada al ayuntamiento por la Mancomunidad Beterri Buruntza.</p> <p>10.-Moción presentada por Elkarrekin Podemos-IU el 25/10/2022 y moción alternativa presentada el 17/11/2022 por los grupos municipales PSE-EE (PSOE) y EAJ/PNV.</p> |
|--|--|

Kontrola

11. Ebazpenen berri ematea, zehazki, 1920/2022 zenbakidunetik 2103/2022 zenbakidunera.
12. Galderak, eskaerak eta proposamenak.

Parte de Control

- 11.-Dar cuenta de las Resoluciones comprendidas entre la nº 1920/2022 y la nº 2103/2022.
- 12.-Ruegos, preguntas y propuestas.

Nahikoa quorum dagoenez eta lehendakaria eta idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzten da.

Alkate andreak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on guztioi eta ongi etorriak izan zaitezte 2022ko azaroaren 24ko Udalbatzar honetara.

“Muy buenas tardes a todas y a todos, y bienvenidas y bienvenidos seaís al Pleno del 24 de noviembre del 2022

“Hasi baino lehen komentatzea Óscar Mendo González, zinegotzi jauna, bajaran dagoela eta bere bozka, Jose Luis Verdasco jaunarengan eskuordetu duela.

“Decíamos que el concejal D. Oscar Mendo González está de baja y, por lo tanto, su voto queda delegado en el concejal José Luis Verdasco.

“Orain, bai, hasiera emango genioke gaurko udalbatzarrari”

1. 2022/10/27an egindako bileraren akta irakurri eta onartzea, bidezko bada.

Lehendabizi, 2022/10/27 datako batzarraldiari dagokion akta aztertzeari ekin zaio, eta inork ezer adierazi ez duela kontuan harturik, onartutzat eman da.

2.

Onartzea,

hasierako izaeraz, barne-gatazkei, laneko jazarpenari, sexu jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko sarrera bakarreko protokoloa proposamena.

Konstituzioko 140. artikulua udalerriei aitortzen dien autonomiaren oinarriaren gainean, Toki Jardunbideko Oinarriari buruzko apirilaren 2-ko 7/1985 Legeko 4.1.a) artikulua udalerriei bere burua antolatzeko ahalmena aitortzen die.

Ikusirik 2022ko azaroaren 3a datan behin-behineko idazkariak emandako txostena.

Ikusirik 2022ko urriaren 31a datan Emakume eta Gizonen berdintasun Teknikariak emandako txostena.

Ikusirik Langilegoa, Antolakuntza eta Barne Araugintza Batzorde Irizpenemaileak 2022ko azaroaren 8ko bileran emandako aldeko irizpena.

Verdasco jaunak, langilegoa, antolakuntza eta barne araugintza zinegotzi ahalduak, hartu du hitza,



honakoa esateko:

“Arratsalde on, muy buenas tardes. El Ayuntamiento quiere dejar expresa constancia de su intención de adoptar, en el marco de sus responsabilidades, cuantas medidas sean necesarias para asegurar un ambiente psicosocialmente saludable, libre de violencia o acoso, no permitiendo, ni consintiendo conductas de tal naturaleza. El presente protocolo tiene como objeto además, establecer el procedimiento de actuación necesario para afrontar gestionar y resolver con sistematicidad, calidad, confidencialidad y eficacia cualquier situación de las descritas que pudieran darse. Además de establecer actuaciones que contribuyan a la prevención de dichas conductas.

“Se opta por un protocolo de entrada única para el afrontamiento de los conflictos internos, acoso laboral, sexual y por razón de sexo, facilitando así su uso a las personas trabajadoras, reduciendo posibles confusiones sin perder la especie especificidad que pudieran tener los asuntos asignando parar para su análisis a diferentes profesionales para cumplir las exigencias específicas del protocolo.

“Se somete a aprobación inicial y su posterior exposición pública durante 30 días. Mila esker”.

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate andreak, proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

Lehenengoa: Onestea, hasierako izaeraz, *barne-gatazkei, laneko jazarpenari, sexu jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko sarrera bakarreko protokoloa.*

Bigarrena: Administrazio-espedientea jendaurrean jartzea, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Andoingo Udaletxeko iragarki-taulan eta www.andoain.eus Udal web-orrian argitaratuz, 30 eguneko epeaz, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako alegazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Hirugarrena: Espedientea jendaurrean dagoen bitartean alegaziorik edo iradokizunik aurkeztuko ez balitz, aipatu araudia behin-betiko izaeraz onetsita geratuko da.

3. Udalaren Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Planaren aldaketa, erretiro-primei dagokienez.

Ikusirik Udalaren Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Planaren arabera (1998ko uztailaren 16an onartu zen, eta 2020ko irailaren 30ean aldatu), borondatezko erretiro aurreratua hartzeko beren gizarte-aurreikuspeneko araubidean ezarritako baldintzak betetzen dituzten langileek prima bat jasotzeko eskubidea dutela. Prima horren zenbatekoa ordainsariaren hileko kopuru jakin baten baliokidea izango da, eta legezko erretiro-adinera arte geratzen den denboraren arabera ezarriko da.

Ikusirik Plan horren oinarria Funtzio Publikoa Erreformatzeko Neurriei buruzko abuztuaren 2ko 30/1984 Legea zen, eta honako hau zioen: "Autonomia-erkidegoek eta toki-korporazioek, beren burua antolatzeko duten gaitasunaren arabera, enplegu-planaz gain, giza baliabideak arrazionalizatzeko beste sistema batzuk ere hartu ahal izango dituzte, beren berezitasunetara egokitutako programen bidez. Lege honen 18. artikuluan 2. eta 3. paragrafoetan aipatutako neurri guztiak edo batzuk jaso ahal izango dituzte, bai eta borondatezko eszedentziarako eta erretiro aurreraturako pizgarriak ere.

Ikusirik Euskal Funtzio Publikoaren Legeak honako hau dio 22. artikuluan: “1. Euskal Administrazio Publikoek, beren burua antolatzeko duten gaitasunaren arabera eta langileen ordezkariekin negoziatuta, giza baliabideak arrazionalizatzeko programak egin ahal izango dituzte, beren berezitasunetara egokituta, funtzionarioei zein lan-kontratuko langileei dagokienez. Programa horietan, batera jasoko dira eraginpean hartzen duten eremuan giza baliabideak ahalik eta ondoen erabiltzeko garatu beharreko jarduerak, betiere aurrekontu-mugen barruan eta beren gobernu-organoei finkatzen dituzten langile-politikako gidalerroekin bat etorritik. 2. Giza baliabideak arrazionalizatzeko programek enplegu-planetarako aplikatzeko den araudi orokorrean ezarritako neurri guztiak edo batzuk jaso ahal izango dituzte, bai eta borondatezko eszedentziarako eta erretiro aurreraturako pizgarriak eta zerbitzu aktiboari uko egiteko edo zerbitzu horretan behin betiko baja emateko pizgarriak ere. 3.- Giza baliabideak arrazionalizatzeko programek lege honetan eta euskal administrazio publiko bakoitzak ematen duen araudian xedatutakoa bete beharko dute.”

Ikusirik Auzitegi Gorenak emandako hainbat epaik adierazi izan dutenez, “ (...) erretiro-sariak ez dira



gizarte-ekintzaren esparruan hartutako laguntza-neurriak, errekurritutako epaiak kalifikatu zituen bezala, baizik eta Estatuko oinarritzko legeriak toki-erakundeetako funtzionarioentzat aurreikusitakoez bestelako ordainsariak. Ez dira funtzionarioaren inguruabar pertsonalen ondorioz sortutako kontingentzia edo ezbehar bat konpentsatzera bideratzen, baizik eta zerbitzu-harremana amaitzeagatik soilik sortzen dira, erretiroa hartzeko legezko adinera iristean, eta hori kasu natural komun bat da funtzionario-harreman guztientzat. Beraz, epaiaren arabera, toki-erakundearen funtzionarioen ordainsari-araubidea aldatzen dute, eta horrek ez du ez legezko ez justifikaziorik”.

Ikusirik, Langilegoa, Antolakuntza eta Barne Araugintza Batzordeak 2022ko azaroaren 8ko bileran emandako aldeko irizpena.

Verdasco jaunak, langilegoa, antolakuntza eta barne araugintza zinegotzi ahalduak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Indicar que la modificación que se plantea es dejar sin efecto las medidas de incentivo a la jubilación anticipada que recoge el Plan de Racionalización que el Ayuntamiento tiene aprobado como consecuencia de la jurisprudencia que marca el alto Tribunal, que indica que estas primas no son de carácter asistencial, sino que tienen un carácter de ingreso, por lo que carecen de normativa legal que las pueda regular o amparar.”

Alkate andreak gaia eztabaidara jarri du eta lehenbizi, Santana andreak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Nosotros nos vamos a abstener, entendiendo que es un marco legal pero que hay sentencias todavía en el aire que estamos esperando, sobre todo en mi caso como sindicalista, en la universidad, que es de donde yo trabajo. Hemos votado en contra de esto hasta que hubiera una sentencia que estamos esperando en la Universidad de Barcelona, por lo que, por asimilación, aquí nos vamos a abstener. No decimos que no sea legal, puede serlo, estamos esperando dos sentencias, que puede ser que sigan dando la razón y sigan en esta línea, pero no quiero contradecirme yo personalmente, ni en nuestro grupo lo que pensamos, entonces, nos vamos a abstener, en este punto.”

Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Alkate andreak, proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzak, gehiengoz, PSE-EE, EAJ-PNV eta EH-Bildu udal taldeetako zinegotzien aldeko botoarekin eta Elkarrekin Podemosen udal taldeko zinegotziaren abstentzioarekin, honako erabakia hartzen du:

Lehenengoa.- Indarrrik gabe uztea Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Planean jasota dauden borondatezko erretiro aurreratuari eta enplegatu publiko izateari pizgarriaren uko-egiteari buruzko neurriak. Neurri horiek udalbatzak onartu zituen 2009ko irailaren 30ean, eta 2009ko urriaren 27an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Bigarrena.- Erabaki honek ez dio eragingo erabaki honen aurretik emandako ebazpenen bidez aitortutako primak edo haborokinak kobratzeko eskubideari.

Hirugarrena.- Erabaki hau udal honetan ordezkariak duten sindikatuei jakinaraztea.

Laugarrena.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

4. Ikutza-Illarramendi auzuneko izendegia behin betikoz onartzea.

Aintzat izanik Andoingo Udaleko Osoko Batzarrak, 2021eko uztailaren 22an egindako batzarraldian, aho batez onartu zuela Ikutza-Illarramendi hiriguneko kale izendegia, behin-behineko izaeraz, eta, ondoren, behin-behineko erabaki hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eman zela argitara, herritar orok ezagun zezan eta, egoki zeritzonak, behar beste alegazio egin, horretarako hilabeteko epea ezarri. Kontuan hartuz aipatu hilabeteko erakustaldi horretan ez dela inolako alegaziorik aurkeztu.

Aintzat izanik, ondoren, Andoingo Udalak Euskaltzaindiari eskatu ziola bere iritzia ematea behin-behinekoz onarturiko izendegiaren gainean, beti ere kontuan izanik oinarri gisa Andoingo Udalak erabili zuen tresna nagusia Euskaltzaindiak berak onetsitako Amaia Usabiaga filologoaren ikerlana zela, aurretik jada Andoingo Udalak ere onarturikoa.

Kontuan hartuz Euskaltzaindiak ontzat jo duela Andoingo Udalaren erabakia, emendakin txikia eginez, zeina baita egokiago ikusten duela *Ikutzako bidea* esatea *Ikutza bidea* baino, izan ere, Andoainen bertan deklinaturiko beste kasu batzuk bai baitaude hor inguruan (*Luberritzako bidea*, esate baterako).



Era berean aintzat izanik, hala Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Legeko 10.1 artikulua xedaturikoa nola Euskadiko Udalen Legeak bere 7.3 artikuluan xedaturikoa, zeinen bidez udalei aitortzen baitzaie udalerrri eremuko toponimia normalizatu eta ofizialtzeko eskumena, eta baita Euskadi toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuko 42. artikulua eta ondorengoek eta 1/88 Udal Ordenantzako 19.1 artikulua herriko toponimiari buruz agindutakoak ere..

Ikusirik, Euskararen Normalizaziorako Batzordeak 2022ko azaroaren 3ko bileran emandako aldeko irizpena.

Huitzi jaunak, euskararen normalkuntzarako zinegotzi ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on denoi. Gogoratuko duzuen bezala, aurreko urteko uztailaren 22ko batzarraldian behin-behineko izaeraz onartu genuen izendegi hau, Ikutza Larramendi da eta sortzen den industrialde berri honi.

“Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen hilabeteko epez eta ez zen inongo emendakinik edo aurkeztu eta beraz, Euskaltzaindiari aurkeztu denean, Euskaltzaindiak esan digu, emendakin txiki bat egiteko, Enbana aurkeztu genuena, eta beraz, aprobazter jarriko genuke hori, azaroaren hiruko Enban aurkeztu genuen, aho batez, onartu ze eta beraz, hona ekartzen digu behin betiko aprobazioa emateko.”

Alkate andreak proposamena eztatidara jarri du eta parte-hartzetik izan ez denez, jarraian, proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV; EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Illarramendi eta Ikutza alderdian industrialde berriaren obra proiektua gauzatu izanaren ondorioz sortu diren bide eta leku publikoen izendapena egiteko behin betiko izaeraz onartzea jarraian zerrendaturiko izenak, erabaki honi atxikirik doakion planoan hartzen duten kokalekuaren arabera:

1. ILLARRAMENDI etorbidea: 1 (C.02), 2 (C.01), 3 (B.02), 4 (B.01), 5 (B.03 eta Plastigaur), 7 (H.01), 9 (B.08), 11 (C.06)

2. TELLERIA etorbidea: 1 (B.04a), 2 (B.05), 3 (B.04b), 4 (C.04)

3. IKUTZAKO bidea

4. IKUTZA biribilgunea

5. PERIKOTEGI biribilgunea

2.- Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara ematea.

3.- Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari behin betiko erabakia jakinaraztea eta bere esku jartzea erabakia hartzeko eginbidean osaturiko agiri-bilduma osoaren aldakia, udal idazkariak benetakotzat egiaztatua, guztia azter dezan eta, legearen arabera iritziz gero, idazpe ditzan onarturiko toponimoak Euskal Autonomia Erkidegoko Izendegi Geografiko Ofizialean, Andoingo Udalarik idazpetze horren jakinarazpena eginez. Hori guztia, azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuko 45. artikulua eta 41/2022 Dekretuak agindutakoei jarraiki.

4.- Behin onarturiko izendegia Euskal Autonomia Erkidegoko Izendegi Geografiko Ofizialean idazpeturik, Andoingo Udalak berau jakinaraziko die izaera publikoa duten erregistroei, Andoingo notaritzari eta eskualdeko hornikuntza enpresei eta ukituriko auzokideei.

5. 2022.09.30 datako kontu-hartzailearen txostenaren berri ematea.

Alkate andreak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Dakizuenetz, legeak dioenaren arabera, hiru hilabetean behin informatu behar dugu zenbateko faktura ordaindu gabe dauden.

“Como marca la ley, y todos ustedes saben trimestralmente tenemos que dar a conocer las facturas que el Ayuntamiento todavía no ha pagado.

“Orduan, 2022ko irailaren 30ean izango liriteke, a 30 de septiembre de 2022, registradas con pago ordenado, 280 euro, y registradas sin pago ordenado, milioi bat laurogeita hemeretzi mila zortziehun eta hogeita bi koma hogeita zazpi euro, un millón noventa y nueve mil ochocientos veintidós con veintisiete



euros.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Osoko Udalbatzarra jakinaren gainean geratu da.

6. Kredituak judizioz kanpo aitortzea (2022/012 txostena) onartzeko proposamena.

Kontuan hartuz, oro har badakigula sektore publikoa osatzen duten administrazio desberdinen artean, tokiko administrazioa dela herritarrengandik gertuen dagoena eta, hortaz, administrazio honetara zuzentzen dituztela, lehenik eta behin, beren eskaerak

Tokiko Administrazioak herritarrek eskatzen duten arintasunera eta eraginkortasunera egokitu behar du bere jarduna. Horregatik, zenbaitetan, eta herritarrei erantzuteko, jarduera administratiboa ez da doitzen, zorrotz-zorrotz, berez zurruna den prozedura legalera.

Zentzu horretan, aurreko ekitaldian, zenbaitetan ondasunen hornidurari eta zerbitzuen prestazioari dagozkien gastuak egin dira, guztiak udal zerbitzu desberdinen garapen arrunterako eta Udalak kudeatutako zerbitzuen prestaziorako behar-beharrezkoak eta ezinbestekoak.

Indarrean dauden arauak bete gabe egiten badira ere (besteak beste, aurrekontu-kreditu egokia eta nahikoa izatea edo prozedurarik jarraitu gabe), Udalak gastu horiek ordaindu beharko ditu, udal-aurrekontuari egotzi ondoren. Legegileak berak jakin badaki arauz kanpoko jarduera horiek egon badaudela, baina, nolana ere, ezinbestekoak diren zerbitzuak emateko, gastu horiek aurrekontu arruntera egozte aurre ikusten du, kredituak judizioz kanpo aitortzeko espediente bat izapidetuz.

Kontuan izanik administrazioarekiko kaltetzea saihesteko eta, hortaz, administrazioaren aberaste bidegabe edo arrazoigabea saihesteko, ezinbestekoa eta derrigorrezkoa dela egindako gastu horiek ordaintzea; kontuan izanik, halaber, gastuak egungo ekitaldira egozte.

Kontu-hartzaileak (2022/012 erref.) 22.11.10ean egindako txostena ikusi ondoren

Ikusirik, Ekonomia eta Ogasuna Batzorde Informatzaileak 2022/11/15eko bileran emandako aldeko irizpena

Alkate andreak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Kasu honetan egindako gastuak bere garaian egotzi ez zirenak aurrekontu arruntera egosteko, judizialaz kanpoko onarpenera ekartzera ekarriko genuke, eta guztira berrogeita bat mila berrehun eta hamahiru koma hirurogeita zazpi eurokoa izango litzateke.

“Decíamos que reconocimiento extrajudicial de créditos para la imputación al presupuesto corriente, los gastos llevados a cabo y no imputados por un importe de cuarenta y un mil doscientos trece con sesenta y siete euros.

“Dokumentazioan daukagu fakturen erlazioa.

“En la documentación se adjunta la relación de facturas.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, jarraian Alkate andreak, proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EH Bildu, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Aurreko ekitaldian egindako gastuak, bere garaian egotzi ez zirenak, aurrekontu arruntera egozteko JUDIZIOZ KANPOKO ONARPENA espedientearen instrukzioa egitea. Zenbatekoa, guztira, 41.213,67 eurokoa da, honela banakatuta:



Espediente zenbakia Numero de expte	Faktura data Fecha factu	Reg. Data Fecha reg.	Hirugarrena Tercero	Arduraduna Responsable	Zenbatekoa Importe	Ar Re
2022-FAKT-003361-00	2022/07/26	2022/07/26	CONSTRUCCIONES ZUBIEDER SL	Zerbitzuak	12.043,74	A
2022-FAKT-003700-00	2022/08/05	2022/08/05	GARRA SL	Zerbitzuak	1.331,00	B
2022-FAKT-003854-00	2022/08/31	2022/08/31	ISS FACILITY SERVICES SA	Zerbitzuak	3.533,91	C
2022-FAKT-003885-00	2022/08/30	2022/09/01	GARRA SL	Zerbitzuak	740,05	B
2022-FAKT-004128-00	2022/08/02	2022/09/15	ZALAKAIN SORARRAIN IÑAKI	Hirigintza	2.837,45	D
2022-FAKT-004179-00	2022/09/20	2022/09/22	AREA 7 SL	Kultura	14.224,77	A
2022-FAKT-004287-00	2022/09/30	2022/09/30	ISS FACILITY SERVICES SA	Zerbitzuak	3.624,25	A
2022-FAKT-004421-00	2022/09/01	2022/09/30	SALKIN MERKATARIEN ELKARTEA	Enplegua	1.851,50	E
2022-FAKT-004493-00	2022/10/04	2022/10/04	AUTOCARES URPA SL	Zerbitzuak	335,01	A
2022-FAKT-004494-00	2022/10/04	2022/10/04	AUTOCARES URPA SL	Zerbitzuak	691,99	A
					41.213,67	
		A	Kontratu txikia, onartu gabeko gastua, ez du jarraitu prozedura 2019/620			
		B	Ez dago krediturik aplikazioan			
		C	Ez dago pleguan sartuta, kontratutik kanpo. Ezinezkoa da			
		D	Ez da udalaren eskumena (hezkontza)			
		E	Dirulaguntza edo ez			

7. K1 Ekopasaia SLLren gastua onartzea, Ondarreta haur-eskolako patioa berritzeko egindako obretatik.

Ondarreta haur-eskolako patioa berritzeko lehen fasea hirigintzako zinegotzi delegatuak 2021eko abenduaren 28ko 2326/2022 zenbakiko ebazpenaren bidez esleitu zuen, 25.740,21 eurotan.

Ikusirik, Ondarreta ikastetxeko zuzendaritzak eskatuta, K1 EKOPAISAIA SLL enpresak proposamen ekonomiko bat egin zuela haur-eskola horretako patioa modernizatzeko. Proposamen horrek 64.721,00 euroko zenbatekoa zuen (+13.591,41 euro, BEZaren kontzeptuan). Proposamen horretan hainbat lan jasotzen ziren, eta horietatik batzuk soilik esleitu zituen Andoingo Udalak, Ondarreta Ikastetxeko zuzendaritzak hala eskatuta, aurten egin beharreko hasierako fasetzat joak, 21.272,90 euroko zenbatekoarekin (+4.4657,32 euro, BEZaren kontzeptuan), jada exekutatu eta enpresari ordaindu zaizkionak (417 faktura, 2022 seriekoa, 2022/05/17koa).

Ikusirik udal aparejadoreak 2022ko urriaren 11n egindako txostena. Horren arabera, obra horren bigarren faseari ekin zaio Udalak behar bezala esleitu gabe, Ondarreta haur-eskolako zuzendaritzak eskatuta.

Kontutan izanik, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituen azaroak 8ko 9/2017 Legearen 118 eta 131.3 artikuluetan esaten dela, obretako kontratuak kontratu txikitat eman daitezkeela euren prezioa 40.000,00 euro baino txikiagoa izanez gero eta kasu hauetan espedientea izapidetzeko, gutxienez, gastua onartzea eta espedienteari dagokion faktura sartzea eskatzen duela legeak.

Kontutan izanik, 2019ko irailaren 19ko 620/2019 Alkatetza ebazpenaren arabera, gastuaren zenbatekoa 5.000,00 €-tik 15.000,00 €-ra bitartekoa bada, gutxienez hiru enpresaren eskaintzak eskatuko dira, eta txosten teknikoan jasotako proposamena dagokion Informazio Batzordean irizpena jaso beharko du.

Ikusirik aurkeztutako fakturaren zenbatekoak aipatutako arauan aurreikusitako muga nahiz hirigintzako zinegotzi ordezkariak hasieran onartutakoa gainditzen duela.

Ikusirik kontuhartzaitzak 2022ko urriaren 14an eta hirigintzako administrazio orokorreko teknikariak 2022ko urriaren 25ean egindako aurkako txostenak.

Ikusirik hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landagune Batzordearen 2022ko azaroaren 21eko irizpena.

Verdasco jaunak, hirigintza, obra, ingurumen eta landagune zinegotzi ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Como explicamos en la Comisión de Urbanismo, por parte de la Dirección del Colegio Ondarreta, se solicitó la renovación del patio del colegio, del edificio de Infantil, ejecutándose a petición del propio colegio en una primera fase a finales del 2021, y que continuó la ejecución durante el 2022.

“En este año la dirección del colegio solicitó la ejecución del resto del parque, o sea, es lo que



venía siendo como si fuera la segunda fase del del patio. En ese momento, nosotros les solicitamos una previsión económica que el colegio disponía de cara a poner en marcha el procedimiento administrativo que correspondiera en ese momento.

“Indicar también que en el mes de junio, dado que carecía la partida presupuestaria de crédito suficientes, se trajo a comisión de ese mismo mes el modificativo de crédito que fué aprobado por unanimidad por todos partidos de la comisión, pero el colegio, y al parecer, entendió que con esa tramitación era suficiente como para poner en marcha la obra, y informó a la empresa que, en ese momento todavía continuaba ejecutando la primera fase, que podría continuar ejecutando lo que era la segunda fase de la obra.

“Evidentemente, en este caso no se cumplió el procedimiento administrativo que correspondería para la adjudicación de esa obra, pero la obra se ha ejecutado como lo ha podido comprobar el aparejador municipal, Y es por ello por lo que sometemos a consideración del pleno la autorización del pago de este gasto.”

Alkate andreak proposamena eztabaidara jarri du eta lehendabizi, Alvarez jaunak, EH Bildu udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on denoi. Hirigintza Batzordean aipatu genuen gure iritzia, baino, obrarekin ados gaude eta egina dago eta ordaindu behar da, baina gure ustez arreta jarri behar da bai prozeduran eta bai koordinazioan, horrelakorik ezin duelako gehiago gertatu. Orduan, Hirigintza Batzordean eskatu genuen eta hemen ere eskatzen diogu berriro horrelakorik gertatu ez dadin, bai prozeduretan eta bai koordinazioan. Kasu honetan ikastetxearekin arreta jarri behar da.”

Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

- 1.- Ondarreta Haurreskola haur-parkea berritzeko obren bigarren faseari dagokion gastua onartzea, 2021eko ekitaldiko Udal Aurrekontuko kontu-sailaren kargura.

Esleipen prezioa	BEZ	Esleipena Guztira
43.448,10 €	9.124,10 €	52.572,20 €
Aurrekontu partida		
319 kodigoa		

- 2.- Ebazpen K1 Ekopasaia SLL enpresari jakinaraztea.
- 3.- Ebazpenaren berri ematea Kontuhartzailaizta lansailari.

8. UNICEF Espainiako Batzordea Fundazioarekin sinatu beharreko hitzarmena, tokiko haurren politikak bultzatzeko konpromisoari buruzkoa.

Kontuan hartuz Andoingo Haurrak Ondo Tratatuzeko Tokiko Plana.

Kontuan hartuz UNICEFek Andoingo udalerria haurren hiri lagun gisa aitortzeko egindako proposamena, UNICEFekin haurren inguruko tokiko politikak bultzatzeko konpromisoa hartzea izango litzateke aitorten hori lortzeko lehen urratsa.

Ikusirik Gizarte Zerbitzuen arduradunak 2022ko azaroaren 16an egindako txostena.

Ikusirik, Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Irizpenemaileak 2022ko azaroaren 21eko bileran emandako aldeko irizpena.

Alkate andreak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bai. Gogoratuko duzuenez, aurtan Andoingo haurrak ondo topatzeko Tokiko Plana onartu genuen, eta beranduxeago, Unicefek Andoingo Udaberria haurren hiri lagun gisa aitortzeko egindako proposamena. Unicefen printzipioekin, haurren inguruko tokiko politikak bultzatzeko konpromisoa



hartzea izango litzateke Aitorpen hori lortzeko lehen urratsa.

“Decíamos que, como todos ustedes recordarán, en este año aprobamos el Plan Local por el buen trato a la Infancia del municipio de Andoain, y a continuación de ello, desde Unicef se nos trasladó la propuesta para que fuéramos reconocidos, el Ayuntamiento de Andoain, el municipio de Andoain, como ciudad amiga de la infancia y para poder emprender los pasos oportunos para ello, la primera cuestión que tenemos que hacer es firmar el compromiso con Unicef para el impulso de las políticas de infancia a nivel local, que sería, como hemos comentado, el primer paso.”

“Orduan, horrexegatik, ba hain justu ekartzen dugu, konpromiso du sinatzeko proposamena. Baita ere alkateari konpromisoari sinatzeko ahalmena ematea, onartzea haur eta nerabeen eskubideen egoerari buruzko diagnostikoa egitea Andoainen, hori izango zitekeelako baita ere lehenengo urratsa, eta batzordean aipatu zen eta Unicefeko arduraduna etorri zen guri esplikatzera eta, esan bezala, ba diagnostiko hori martxan jartzeko.”

